

**CATÁLOGO DE  
AUTORAS Y AUTORES  
SELECCIONADOS EN LA  
X. EDICIÓN DE MAZOKA,  
MERCADO DE DIBUJO E  
ILUSTRACIÓN, 2025**



LAGUNTZAREKIN / PATROCINADO POR:



**Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala**



**araba álava**  
foru aldundia diputación foral



## KATALOGOKO KREDITUAK / CRÉDITOS DEL CATÁLOGO

ARGITARATZAILEA / EDITA:

COLADEPERRO.COM

ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA



araba-álava  
foru aldundia diputación foral

ARGITALPENAREN KOORDINAZIOA / COORDINACIÓN DE LA EDICIÓN:

MARTA C. DEHESA

PORTADAREN ILUSTRAZIOA-MAZOKA 2025 KARTELA /

ILUSTRACIÓN DE PORTADA-CARTEL MAZOKA 2025:

ANE ARZELUS

KONTZEPTUA ETA DISEINU GRAFIKOA / CONCEPTO Y DISEÑO GRÁFICO:

ANUSKA GRAPHIC - ANUSKA ARBILDI

TESTUAK / TEXTOS:

HITZAURREA - PRÓLOGO: MARTA C. DEHESA

MAZOKALARIENA / DE LES MAZOKALARIS

BARNE-ILUSTRAZIOAK / ILUSTRACIONES DEL INTERIOR:

MAZOKALARIENA / DE LAS, LOS Y LES MAZOKALARIS

ITZULPENA / TRADUCCIÓN:

SAIOA UZKIANO

INPRIMATEGI / IMPRIME:

ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

L.G. / D.L.:

INPRIMAKIA GASTEIZEN, 2025KO AZAROAN / IMPRESO EN VITORIA-GASTEIZ EN NOVIEMBRE DE 2025.  
©2025...COLADEPERRO

ESKUBIDE GUZTIAK ERRESERBATUTA.

EDOZEIN ERABILERATARAKO JARRI HARREMANETAN HOLA@MAZOKA.ORG HELBIDEAREKIN.

RESERVADOS TODOS LOS DERECHOS. PARA CUALQUIER USO CONTACTAR CON HOLA@MAZOKA.ORG



MARRAZKI AZOKA  
MERCADO  
DE DIBUJO  
E ILUSTRACIÓN

19-20-21  
ABENDUA-DICIEMBRE  
VITORIA-GASTEIZ  
2025

**2025EKO MAZOKA  
MARRAZKI AZOKAREN  
X. EDIZIOAN HAUTATUTAKO  
EGILEEN KATALOGOA**

**CATÁLOGO DE  
AUTORAS Y AUTORES  
SELECCIONADOS EN LA  
X. EDICIÓN DE MAZOKA,  
MERCADO DE DIBUJO E  
ILUSTRACIÓN, 2025**

[WWW.MAZOKA.ORG](http://WWW.MAZOKA.ORG)

#MAZOKA2025

## MAZOKAREN X. URTEURRENA

Gutuna **MAZOKA** familiari

**Txinparta batekin hasi zen dena eta, hamar urte geroago, garretan gaude.** Sua, urteurreneko kandlei putz egiteko, inoiz ez genuelako imajinatu ere egin honela ospatuko genuenik: MAZOKA Familia Handiaz bikain inguratuta. Sua, amorru bizian eta sutan gaudelako, eta gure arkatzak zuziak balira bezala altxatzen ditugulako argia egin dadin; haien puntak pospoloak dira, eraikuntza masiboko arma bat eta iparrorratz bat, iparra gal ez dezagun.

Gure lehen ediziotik, helburuen artean zegoen **ilustrazioaren garrantzia zabaltzea, ikusaraztea eta herritarrei, erakundeei eta gizarteari hurbiltzea:**

ilustrazioak dena zeharkatzen baitu eta gure egunerokoan etengabe presente baitago;

ilustrazioa funtsezko tresna sortzailea baita ikerketan, garapenean, ezagutzan eta justizia sozialaren bitarteko gisa, eta; ilustrazioa funtsezko komunikazio-hizkuntza baita, beste hizkuntza batzuk iristen ez diren lekura iristen delako.

MAZOKAn pertsona sortzaileen talentua, irudimena, originaltasuna eta ahalegina babesten ditugu. Sormenaren txinparta gizakion ezaugarri berezienetako bat da. Hura gabe ez leudeke, ez poesia, ez Internet, ez esplorazio espaziala. Hura gabe ez leudeke, ez bilakaera eta harreman sozialak, ez garapen emozionalak eta kognitiboak, ez pentsamendu kritikoa, ezta enpatia, berrikuntza edo Artea ere.

**Giza irudimena (ez dago besterik) da mugarik eta oztoporik gabeko lurralde bakarra, non ezinezkoa dena errealitate bihurtu dezakegun.**

AA sortzailearen garaian murgilduta gaude, oinarritzko eskubideak urratzen dituen sistema estraktibista, alborapendun eta zapaltzaile horren garaian, besteak beste, ilustrazioaren sektorearen jabetza eskubideen lapurretan —eta baimenik gabeko erabileran— oinarrituz eraiki den sistemaren garaian;

hala, **X. edizioan SORMENAREN TXINPARTAN eta sormen jasangarrian jarri nahi dugu arreta.** Irudimena baita gizaki egin gintuena, eta sormena baita mundua eraldatzen duen txinparta. **Horien aberastasuna, aniztasuna eta potentzialtasuna ordezkaezinak dira.**

Zer egingo genuke originaltasunaren, hizkuntza grafikoaren sotiltasunaren, abstrakzioaren, sakontasun emozionalaren eta testuingurua ulertzeko gaitasunaren, kontzeptuak elkarren artean lotzeko eta gizakion adimenak berezko dituen gaitasunen balio horiek gabe? Zer egingo genuke sortzeko eta amets egiteko gaitasunik gabe?

**Batzuetan, zerbait amestu dezakegulako eta, batzuetan, egia ere bihurtzen delako.**

Guk espazio batekin egin genuen amets, non ilustrazioa, marrazkigintza eta horiek denak sortzen dituzten pertsonak protagonista izango ziren eta merezi dituzten txaloak jasoko zituzten. Halako espazioak aktoreentzat, poetentzat, musika-rientzat eta agertokietara igo ohi diren beste kideentzat izan ohi dira, eta, bien bitartean, gure obrak eta izenak beti oihala-ren atzean ezkutatzen dira edo gutxietsi egiten dira.

**MAZOKA ez litzateke existituko** eta ez litzateke gaur egun dena izango **bere mazokalariak gabe.** Mazokalariak eraikitzen duzue Marrazki Azoka eta zuek betetzen duzue kolorez, ilusioz, originaltasunez (opariz) eta profesionaltasunez. Zuek zarete gure arrakastarik handiena eta zuek zarete benetan ospatu behar duguna.

Mazokaren hamarkada bat posible egin duzuen guztioi: ilustratzaile, mazokalagun, kolaboratzaile, babesle eta bisitariari, **eskerrik asko!**

Jarrai dezagun guztion artean abenduan, Gasteizen, sormenaren garra pizten, ilustrazioaren garra pizten.

Bihotzez, zuen number one grupieak  
**Marta & Anuska**

## MAZOKA X ANIVERSARIO

Carta a la familia MAZOKA

**Todo empezó con una chispa, y diez años después estamos en llamas.** Fuego para soplar las velas de un aniversario, que nunca imaginamos íbamos a celebrar, tan increíblemente rodeadas de la Gran familia MAZOKA. Fuego porque ardemos de rabia y levantamos nuestros lápices cual antorchas para que se haga la luz, sus puntas son cerillas, un arma de construcción masiva y una brújula para que no perdamos el norte.

Desde nuestra primera edición, entre los objetivos estaban **divulgar, visibilizar y acercar a la ciudadanía, las instituciones y la sociedad, la importancia de la ilustración:**

que la ilustración lo atraviesa todo y está presente en nuestro día a día de forma constante;

que la ilustración es una herramienta creativa fundamental en la investigación, el desarrollo, el conocimiento y como vehículo de la justicia social y;

que la ilustración es un lenguaje de comunicación fundamental, porque llega donde otros lenguajes no llegan.

En MAZOKA apoyamos el talento, la imaginación, la originalidad y el esfuerzo de las personas creativas. La chispa creativa es uno de los rasgos humanos más extraordinarios. Sin ella no habría poesía, ni internet, ni exploración espacial. Sin ella no habría evolución, cambios y conexiones sociales, desarrollos emocionales, cognitivos, pensamiento crítico, empatía e innovación y Arte. **La imaginación humana (no hay otra) es el único territorio donde no existen límites ni barreras, nos permite transformar lo imposible en realidad.**

En tiempos de la IA Generativa, ese sistema extractivista, sesgado, opresivo y que vulnera derechos fundamentales, construido sobre el robo -y uso no autorizado-, de los derechos de autoría del sector de la ilustración -entre otros- y las personas que lo hacen posible, **queremos poner el foco en esta X edición en la CHISPA CREATIVA y la creatividad sostenible.**

Porque la imaginación es la que nos hizo humanos y la creatividad es la chispa que transforma el mundo.

**Su riqueza, variedad y potencial es insustituible.**

¿Qué haríamos sin el valor de la originalidad, las sutilezas del lenguaje gráfico, la abstracción, la profundidad sensitiva y la capacidad de comprensión contextual, de conectar conceptos, que son inherentes a la mente humana?

¿Qué haríamos sin nuestra habilidad de crear y soñar?

**Porque a veces podemos soñar algo y, a veces, hasta se hace realidad.**

Nosotras soñamos con un espacio en el que la ilustración, el dibujo y las personas que lo generan fueran protagonistas y recibieran los aplausos que se merecen y se suelen reservar para actores, actrices, poetas, músicas y demás compañeros que se suben a un escenario, mientras que nuestras obras y nombres siempre se esconden tras el telón o se minusvaloran.

**MAZOKA no existiría** y no sería lo que es hoy, sin **sus mazokalaris**. Les Mazokalaris sois los que construís el Mercado de dibujo e ilustración y lo llenáis de color, ilusión, originalidad (regalos) y profesionalidad. Vosotres sois nuestro mayor éxito y lo que realmente tenemos que celebrar.

A todes los que habéis hecho posible una década de Mazoka: ilustradoras, mazokalagun, colaboradoras, patrocinadores y visitantes, eskerrik asko!

**Sigamos haciendo entre todes que en Diciembre, en Vitoria-Gasteiz, se prenda la llama de la creatividad, la llama de la Ilustración.**

Bihotzez, vuestras groupies number one  
**Marta y Anuska**



XIMON AGIRRE

XIMON AGIRRE IZKO

BIZKAIA

(Hernani, Gipuzkoa, 1994) Ilustratzailea eta Bideosortzailea.

Artean graduduna UPV/EHU (2016) eta Inprimaketa Grafikoko, Ilustrazioko eta Txanpongintza Artistikoko Baliabideetan masterra FNMT/UCLM (2018).

90eko hamarkadako marrazki bizidunetatik eta jostailuetatik edaten duen iruditeria batetik abiatuta, irudi koloretsuak sortzen ditu fantasiako unibertso komun bat partekatzen duten pertsonaia tetrikoekin edo munstro itxurakoekin. Bere lanak askotariko teknikekin eraikitzen ditu, hala nola 2D ilustrazio digitalarekin, animazioarekin eta errealtate birtualeko 3D modelatuarekin; hala, irudiei sakontasun berri bat ematen die eta mundu ukigarriara gerturatzen ditu 3D inprimaketaren bidez.

Caóstica edo Getxoarte jaialdi eta programetan saritu eta hautatu izan dute, besteak beste. Gaur egun, musika taldeekin lan egiten du batik bat, bai alderdi grafikoan, bai ikus-entzunezkoetan, eta musika jaialdien edo telebista saioen identitate bisualean ere dihardu.

(Hernani, Gipuzkoa, 1994), Ilustrador y Videocreador.

Graduado en Arte, UPV/EHU (2016), tras lo cual cursó un Máster en Medios de Impresión Gráfica, Ilustración y Acuñación Artística, FNMT/UCLM Madrid (2018).

Partiendo de un imaginario que bebe de dibujos animados y juguetes de los 90, crea imágenes coloridas con personajes tétricos o monstruosos que comparten un universo fantástico común. Construye sus obras con técnicas diversas como la ilustración digital 2D, la animación, y el modelado 3D en realidad virtual, dotando a las imágenes de una nueva profundidad y acercándolos al mundo tangible a través de la impresión 3D.

Premiado y seleccionado en Festivales y Programas como Caóstica o Getxoarte, actualmente trabaja mayoritariamente con grupos de música, tanto la parte gráfica, como la audiovisual, así como la identidad visual de festivales de música o programas televisivos.

#MAZOKA2025

@XIMONAGIRRE

WWW.MAZOKA.ORG



**JUNITAMAKINA**

**RUTH JUAN**

**BIZKAIA**

**(Bartzelona, 1973) Ilustratzailea, diseinatzailea eta muralgilea.**

Ilustrazioko goi-mailako prestakuntza zikloa egin zuen Argi Arte de Bilbao Eskolan (2012), eta 2013an BilbaoArte Fundazioaren beka jaso zuen.

Bere lana hirian zentratzen da, egunerokotasunean, arazo sozialetan eta lankidetzazko proiektuetan, eta ilustrazio editoriala, irudi grafikoa eta muralgintza hartzen ditu barne; izan ere, hiriko bere lan koloretsuak gure kaleen ezaugarri ikoniko bat dira dagoeneko.

Akrilikoekin eskuz pintatutako zurezko maskaren serie bat aurkeztuko du, zeinak forma arakatzen baitute sinbolo gisa. Geometria, patroia eta kontraste kromatikoen bidez, gizatiarra, aberekoa eta grafikoa den horrek bat egiten duten unibertso bat eraikitzen du.

**(Barcelona, 1973) Ilustradora, diseñadora y muralista.**

Formada en la Escuela Argi Arte de Bilbao. en la que cursó el Ciclo Formativo de Grado Superior en Ilustración (2012), en 2013 fue becada por la Fundación BilbaoArte.

Su trabajo se centra en lo urbano, lo cotidiano, las problemáticas sociales y los proyectos colaborativos, abarcando la ilustración editorial, la imagen gráfica y el muralismo, en el que sus coloridas obras urbanas son ya un sello icónico de nuestras calles.

Presenta una serie de máscaras en madera pintadas a mano con acrílicos que exploran la forma como símbolo. A través de geometrías, patrones y contrastes cromáticos construye un universo donde confluyen lo humano, lo animal y lo gráfico.



**TODAVÍA**

**REGINA JIMÉNEZ COSTA**

**BARCELONA**

**(Bartzelona, 1989) Ilustratzailea eta auzoko liburuzaina.**

Prestakuntzaz autodidakta da eta 2020an Ilustrazio gradua amaitu zuen Escola d'Art Pau Gargallo-n; gaur egun bere artista tailer propioa du.

Bere lan guztiek sentimenduak, mundu onirikoa eta egunerokoa den hori aztertzen ditu. Orratzaren bidez egiten dute hori, puntada libreko brodatuen itxurarekin, txinatar tintarekin eta gouachearekin, formatu desberdinetako lanetan, abanikoetatik hasi eta esku hartzeak dituzten formatu handiko erreprodukzioetaraino. Serigrafia ere erabiltzen du, oihal gainean, elastikoetan eta poltsatan. Kolorea eta lerro fina dira bere lanaren protagonistak: elkarrekin sinergia bat sortzen dute eta hortik irudiak sortzen dira, pertsonaia edo naturako elementuekin, zeinak istorio bat kontatzen baitigute, dela egunerokoa, dela onirikoa, dela sentimendu bat arakatzen duen istorio bat.

**(Barcelona, 1989) Ilustradora y bibliotecaria de barrio.**

De formación autodidacta en 2020 se gradúa en Ilustración en la Escola d'Art Pau Gargallo, actualmente tiene su propio taller de artista.

Todos sus trabajos exploran los sentimientos, el mundo onírico y lo cotidiano. Lo hace a través de la aguja en forma de bordados de punzada libre, la tinta china y gouache en obras de diferentes formatos, desde abanicos hasta reproducciones intervenidas, y obras de gran tamaño, así como serigrafía sobre tela, camisetas y bolsas. El color y la línea fina son los protagonistas de sus ilustraciones, juntos crean una sinergia y de ello surgen imágenes con personajes y elementos de la naturaleza que siempre cuentan una historia, ya sea cotidiana, onírica o que explore un sentimiento.

# AVE FÉNIX

MITOS Y LEYENDAS

el periódico de las criaturas mágicas

Nº IV



a. Myrrhis odorata

Sus plumas fueron muy cotizadas para la elaboración de amuletos y hechizos. De igual modo, se creía que sus lágrimas tenían grandes poderes curativos, y su llanto era hipnótico y reconfortante.




b. Cinnamomum verum

No se sabe cómo son sus huevos, pues contruyen sus nidos de canela y mirra, no para anidar, si no para fallecer con un fuego abrasador del que surge una nueva vida.



c. Nido canela y mirra



El fénix es un ave de gran tamaño, de vivos colores rojos, dorados y púrpuras. Parece enormes halcones o águilas con picos ganchudos y penetrantes ojos de rubí.

## HISTORIA

El fénix es un ave mitológica que representa la renovación. Su característica más conocida es la de resurgir de sus propias cenizas, por esto se ha llegado a considerar una criatura inmortal. Se cree que tiene un ciclo interminable de vidas que empiezan y acaban con el fuego.

Tiene muchos nombres y existe desde el Imperio Antiguo, que sepamos. Su fisonomía cambia según la región y la época, pero todas las descripciones coinciden en su gran tamaño, longevidad y poder de regeneración. Es una de las criaturas mágicas más difíciles de encontrar.

RAQUEL WEST

RAQUEL WESTPHAL MARQUEZ

MADRID

(Matalascañas, Huelva, 1995) Ilustratzailea eta artisau bitxigilea.

Arte Ederretan graduduna UCLMn, grabatu Masterra FNMTren (Espainiako Moneta eta Tinbre Fabrika Nazionala) Grabatu eta Diseinu Grafikoko eskolan eta Ilustrazio editorialeko Masterra TRAZOS eskolan. Ilustratzaile gisa lan egin du SM, Molino, Alfaguara eta RBA argitaletxeentzat, besteak beste, eta horien artean aipatzekoa da Jane Austinen 250. urteurrenean Penguin Clásicos-entzat egindako saila.

Bere lanak natura du inspirazio-iturri. Bere landa-koadernoetan zein dibulgatzeko ahalegina egiten duten bere irudi-orrietan, mota guztietako izakiak ilustratzen ditu, bai oinarri zientifikoarekin, bai oinarri mitologikoarekin: adarbakarrak, dragoiak, baina baita dinosauroak, lepidopteroak, koleopteroak, onddoak, landareak eta beste asko ere.

(Matalascañas, Huelva, 1995) Ilustradora y artesana de bisutería.

Graduada en Bellas Artes en la UCLM, máster de grabado en la escuela de Grabado y Diseño Gráfico de la FNMT (Museo Nacional de Moneda y Timbre) y Máster en Ilustración editorial en la escuela TRAZOS. Ha trabajado como ilustradora para editoriales como SM, Molino, Alfaguara, RBA, entre las que destaca la colección por el 250 aniversario de Jane Austin para Penguin Clásicos.

Su trabajo se inspira en la naturaleza. En sus cuadernos de campo y en sus láminas, de interés divulgativo, ilustra todo tipo de criaturas, tanto con base científica como mitológica: unicornios, dragones, pero también dinosaurios, lepidópteros, coleópteros, hongos, plantas, etc.

#MAZOKA2025

@RAQUELWST

WWW.MAZOKA.ORG



## LENGUA BASE

RAQUEL ARANO/ PAULA ARIAS

MADRID

### (Madrid, 2016) Artisanu-serigrafia tailerra.

Raquel Arte Ederretan lizentziaduna da eta Madrilen egin zituen ikasketak. Telebistarako, telesailarako eta filmetarako Vfx eta grafismoa egiten ditu. Orain arte denda batean ari da lanean. Paula gizarte hezitzailea da eta GKE batean lan egiten du. Nebraskara Lengua Base proiektuarekin egindako bidaia batean ezagutu zuten elkar. Lavapiesen zuten lehen tailerra gentrifikazioak eraman zuen eta, orain, Madrilgo aldirietan aurki ditzakegu.

Bere lanak bidaia, diskoak, liburuak, abestiak edo filmetako argazkiak ditu abiapuntu, eta horien arrastoa gordetzen saiatzen dira, serigrafiaren bidez egindako ilustrazioetan. "Batzueta, hori guztia munduari buruz ditugun kezak transmititzearekin eta larritasunak pixka bat askatzearekin lotuta dago".

Paperean egiten dituzten lanez gain, horma irudiak egiten dituzte, baita hoteletarako pareta estanpatuak, liburuen azalak eta ekitaldietarako eskultura efimeroak ere.

### (Madrid, 2016) Taller de Serigrafía Artesanal.

Raquel se licenció en Bellas Artes en Madrid y trabajaba haciendo Vfx y grafismo para televisión, series y películas. Ahora se ha mudado a trabajar en una tienda de arte. Paula es educadora social y trabaja en una ONG. Se conocieron en un viaje a Nebraska y juntas crearon el proyecto Lengua Base. Su primer taller en Lavapiés se lo llevó la gentrificación y ahora las podemos encontrar en el extrarradio madrileño.


Su obra parte de fotografías de viajes, discos, libros, canciones o películas cuya huella intentan retener en ilustraciones a través de la serigrafía. "A veces también todo esto va de transmitir nuestras preocupaciones sobre el mundo y liberar un poco las angustias".

Además de su obra en papel hacen murales, paredes estampadas para hoteles, portadas de libros, esculturas efímeras para eventos y aceptan cualquier tipo de reto que les entretenga y con el que aprendan en el camino.

#MAZOKA2025

[WWW.LENGUABASE.COM](http://WWW.LENGUABASE.COM)

[WWW.MAZOKA.ORG](http://WWW.MAZOKA.ORG)



**RAMÓN PARÍS**

**RAMÓN PARÍS**

**BARCELONA**

**(Venezuela, 1969) Ilustratzailea, diseinatzailea eta animatzaile grafikoa.**

Venezuelako Central Unibertsitatean Gizarte Komunikazioa (1992) eta Pompeu Fabran animaziozko film laburrei zuzendutako 3d Master bat (2003) ikasi bazituen ere, berak dioenez, prestakuntzaz nagusiki autodidakta da, eta hainbat profesional eta ikaskideren laguntzarekin ikasi du.

Bere lanak hainbat erakusketatan egon dira ikusgai eta sari prestigiotsu ugari jaso dituzte (BDA Award, NEW YORK FESTIVALS, PUBLIFESTIVAL, LAUS, White Ravens, IBBY List International Board on Books, Bologna Illustration Exhibition, batzuk aipatzearren) eta 10 album baino gehiago ilustratu ditu, zeinak ingelesera, frantsesera, portuguesera, alemanera, koreerara, mandarinera eta japonierara itzuli baitira, besteak beste.

Bere serigrafia lanak bere unibertso pertsonala irudikatzen du: lan askeagoa da, adierazkorragoa, umorez eta kontraesanez betea. Zoologiko moduko bat da, haren haurtzaroko nostalgiaren eta historiaren zati baten emaitza apika.

**(Caracas, Venezuela, 1969) Ilustrador, diseñador y animador gráfico.**

Aunque estudió Comunicación Social en la Universidad Central de Venezuela (1992), y un Master 3d dirigido a cortometrajes animados en la Pompeu Fabra (2003) manifiesta que su formación es fundamentalmente autodidacta gracias a diferentes profesionales y compañeros.

Ha participado en múltiples exposiciones y ha recibido prestigiosos premios (BDA Award, NEW YORK FESTIVALS, PUBLIFESTIVAL, LAUS, White Ravens, IBBY List International Board on Books, Bologna Illustration Exhibition, entre otros) y ha ilustrado más de 10 libros álbum, traducidos al inglés, francés, portugués, alemán, coreano, mandarín y japonés, entre otros.

Su trabajo de serigrafía representa su universo personal: un trabajo más libre, expresivo, lleno de humor y contradicciones. Una suerte de zoológico posiblemente resultado de parte de la nostalgia e historia de su niñez.



PALOMA E. DE MIGUEL

PALOMA ESCOLAR DE MIGUEL

ÁVILA

**(Cuevas del Valle, Gredosko mendilerroa, 1989) Ilustratzailea, Zuzendari sortzailea eta FADIPen kudeatzailea.**

Ilustrazioan graduduna, Bristolgo University of the West of England-en (2016), Diseinu Masterra Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Grabatu espezializazioa Betanzoseko CIEC Fundazioan. Bere estanpak eta esku-hartze grafikoak Oviedon, Kantabrian, Madrilen eta Parisen egon dira ikusgai, besteak beste, eta hainbat sari eta errekonozimendu jaso ditu, hala nola Versiona Thyssen.

Grabatuaren teknikarekin lan egiten du nagusiki: linograbatua, litografia, monotipoa eta teknika kalkografikoak, hala nola urtinta edo berniz biguna, “lurra zaintzen eta eraldatzen duten keinu horiek finkatzeko”, lerro, testura eta isiluneen bidez.

Landa-eremutik, eta trazuak entzuteko modu gisa hartuta, bere lan grafikoak gorputzen eta lurraldearen arteko harremana behatzen du, paisaiaren erritmo motela: animalien iragatea, landareen erretzea, uztaren bilketa.

**(Cuevas del Valle, Sierra de Gredos, 1989) Ilustradora, Directora creativa y Gerente de FADIP.**

Graduada en Ilustración, University of the West of England, de Bristol (2016), con un Master en Diseño en la Universidad Complutense de Madrid y Especialización en Grabado por la Fundación CIEC de Betanzos. Su estampas e intervenciones gráficas han sido expuestas desde Oviedo, Cantabria, Madrid hasta París, y recibido premios y reconocimientos como el Versiona Thyssen.

Trabaja principalmente con la técnica del grabado: linograbado, litografía, monotipo y técnicas calcográficas como la aguatinta o el barniz blando “para fijar esos gestos que cuidan y transforman la tierra” a través de líneas, texturas y silencios.

Desde lo rural y con el trazo como forma de escucha, su obra gráfica observa la relación entre los cuerpos y el territorio, el ritmo lento del paisaje: el paso de los animales, la brotación de las plantas, la recogida de la cosecha.

OLGALABUSTOS

OLGA ALAMEDA BUSTOS

BARCELONA

**(Mataró, Bartzelona, 1983) Marrazkilaria eta Bigarren Hezkuntzako irakaslea.**

Arte Ederretan lizentziaduna Bartzelonako Unibertsitatean (2005). Bere hitzetan, “marraztearen plazera burua gelditzean eta zuriuneak betetzean datza”.

Hainbat teknikarekin esperimentatu ondoren, boligrafoa hautatu zuen, berak dioenez, tresna “sinplea eta perfektua” baita formatu handiko obretan bilatzen duen estilo minimalista eta garbi horri erantzuteko; izan ere, koloretik harago, argiekin eta itzalekin jolasteko aukera ematen dio, horiek protagonista gisa hartuta. Boligrafoa erabilia, bere bidean gurutzatzen diren txokoak, gauzak eta pertsonak irudikatzen ditu, zeinak aldi berean “sinpleak baina perfektuak” baitira eta hala, iruditeria bat sortzen du, non pertsonak bakanak diren eta, aldi berean, edonor izan gaitzkeen, generoaz, adinaz, naziotasunaz, gorputzaz, adimenaz, hizkuntzaz, irrikaz, ilusioz eta abarrez harago.

**(Mataró, Barcelona 1983) Dibujante y Profesora de Secundaria.**

Esta Licenciada en Bellas Artes por la Universidad de Barcelona (2005) mantiene que el “placer de dibujar radica en parar la mente y llenar espacios en blanco”.

Tras experimentar con diversas técnicas se decanta por el bolígrafo, al que describe como herramienta “sencilla y perfecta”, como respuesta al estilo minimalista y limpio que busca en sus obras de gran formato, con el que puede jugar con las luces y las sombras como protagonistas más allá del color. Con él representa pequeños lugares, cosas y personas que se cruzan en su camino, que son a su vez “sencillas pero perfectas”, creando un imaginario en el que las personas son únicas y a las vez podemos ser cualquiera, más allá del género, edad, nacionalidad, cuerpo, mente, idioma, anhelos, ilusiones, etc.





**NURIA DÍAZ**

**NURIA DÍAZ BERRIDE**

**A CORUÑA**

**(Vilagarcía de Arousa, Pontevedra, 1982) Ilustratzailea.**

Arte Ederretan lizentziaduna Vigoko Unibertsitatean (2006) eta Arte eta Komunikazio Masterra Santiago de Compostelan (2007). Bere moldakortasunak, zeinak teknika tradizionalak eta digitalak konbinatzen baititu, hainbat esparrutan lan egiteko aukera eman dio, eta arlo editoriala, publizitatea eta produktua dira nabarmentzekoak.

35 liburu baino gehiago lilustratu ditu, besteak beste, Lunweg, Libre Planeta edo Penguin Random House argitaletxeentzat, eta horietako batzuk testuaren eta ilustrazioaren egile oso gisa egin ditu (El gran hotel Wes Anderson, 2018; Alfred Hitchcock, el niño que filmó el miedo, 2023; edo Charlie Chaplin, el pequeño vagabundo). Bere bezeroen artean daude ere Ikea, Samsung, Kultura Ministerioa eta Naipes Fournier.

Bere estiloa naifa eta iradokitzailea den horren artean dago, eguneroko munduak irudikatzen ditu, nostalgiarekin, baina hainbat esanahi geruzarekin.

**(Vilagarcía de Arousa, Pontevedra, 1982) Ilustradora.**

Licenciada en Bellas Artes por la Universidad de Vigo (2006) y con un Máster en Arte y Comunicación en Santiago de Compostela (2007). Su versatilidad, en una combinación de técnicas tradicionales y digitales, le ha permitido trabajar en diferentes ámbitos, destacando el editorial, la publicidad y el de producto.

Lleva ilustrados más de 35 libros para editoriales como Lunweg, Libre Planeta o Penguin Random House, algunos de ellos como autora completa del texto y la ilustración (El gran hotel Wes Anderson, 2018; Alfred Hitchcock, el niño que filmó el miedo, 2023 o Charlie Chaplin, el pequeño vagabundo). Otro clientes suyos son, entre otros, Ikea, Samsung, Ministerio de Cultura y Naipes Fournier.

Su estilo oscila entre lo naif y lo evocador, representa mundos cotidianos en donde la nostalgia está presente pero en los que cohabitan varias capas de significados.

**#MAZOKA2025**

**[WWW.NURIADIAZ.ES](http://WWW.NURIADIAZ.ES)**

**[WWW.MAZOKA.ORG](http://WWW.MAZOKA.ORG)**



**NATALIA VELARDE**

**NATALIA VELARDE MORÍN**

**MADRID**

**IKASLEA/ESTUDIANTE**

**(Valencia, Venezuela, 1992) Komiki marrazkilaria, fanzinegilea eta ilustratzailea.**

Arte Ederretan lizentziaduna Rey Juan Carlos Unibertsitatean. Tarde y Triste autoedizioko mikrozigiluaren sortzailea da eta, 2022tik, Plena Inclusión Madrid-ekin kolaboratzen du: fanzinearen, komikiaren eta autoedizioko azoken inguruko proiektu kulturalak eta prestakuntzarekin lotutakoak garatzen ditu, arreta berezia jarritz desgaitasun intelektuala duten pertsonen iragarritasunean, esperimentazio artistikoan eta ahalduntzean.

Frantziako merkatuarentzat lan egin du Métal Hurlant aldizkarian eta, Espainian, bere lehen eleberri grafikoa, Encías Quemadas (Reservoir Books), 2025ean argitaratu zuen Injuve bekari esker. Horrez gain, hainbat errekonozimendu jaso ditu hainbat komiki jaialdi eta aretotan.

Bere lanaren ezaugarri nagusiak erraietakoa, onirikoa eta poetikoa den hori uztartzen dituela dira, eta egunkariak idaztearekin lotutako horrekiko eta perzinearekin esperimentatzearekiko interes nabarmena du. Bere autofikziozko kontakizunen protagonistak giza aurpegia duten izaki kimerikoak izan ohi dira, zeinak kezka intimoak gorpuzten baitituzte eta alegia garaikide gisa kontaktzen baitira.

**(Valencia, Venezuela, 1992) Dibujante de cómics, fanzinera e ilustradora.**

Licenciada en Bellas Artes por la Universidad Rey Juan Carlos es fundadora del micro sello de autoedición Tarde y Triste, y desde 2022 colabora con Plena Inclusión Madrid, desarrollando proyectos culturales y formativos en torno al fanzine, el cómic y las ferias de autoedición, con un enfoque en la accesibilidad, la experimentación artística y el empoderamiento de personas con discapacidad intelectual.

Ha trabajado para el mercado francés en la revista Métal Hurlant y, en España, publicó en 2025 su primera novela gráfica, Encías Quemadas (Reservoir Books), gracias a la Beca Injuve. Asimismo, ha recibido varios reconocimientos en festivales y salones de cómics.

Su obra se caracteriza por la visceralidad, lo onírico y lo poético, con un marcado interés en lo diarístico y en la experimentación del perzine. Sus relatos de autoficción suelen estar protagonizados por criaturas quiméricas de rostro humano que encarnan inquietudes íntimas y se narran como fábulas contemporáneas.

**#MAZOKA2025**

**@NIX.CONBOTAS**

**WWW.MAZOKA.ORG**



ZEIN DA ZURE ATERPEA?

MARRIMARRAZKI  
MARÍA ORTIZ BAÑOS  
BIZKAIA

(Murtzia, 1990) Fisikaria eta ilustratzailea.

UPV/EHUn Fisikan doktoretza egin ondoren (2021), hizkuntza grafikoan trebatzea erabaki zuen, eta ilustrazioko goi-mailako zikloa egin zuen IDarten, Gasteizen (2023).

Ehunetarako diseinuetan, autoedizioan, karteletan, tailerretan eta, gaur egun, komikien munduan lan egiten du. Hainbat elkarterekin kolaboratu du, hala nola Uribarri Auzolanean, Harilka edo Mundubat-ekin, baita hainbat erakunderekin ere (Lamiaena, Bizkaiko Foru Aldundia edo Eusko Jaurlaritza); horrez gain, hautatua izan da Galtzagorri eta Euskal Irudigileak-en mintegi eta egonaldiatarako.

Tresna tradizionalak aukeratu ohi ditu, horrela, bere ilustrazioak zintzoagoak direla sentitzen baitu, bai ikuspegi kritiko batetik, bai umorearen ikuspegitik. Horrez gain, euskararekin duen lotura agerian geratzen da bere lanetan. Horien artean aipatzekoa da "Hitz Korapiloak": hiztegi ilustratu bat, gure hizkuntzarekin izan zuen ikasketa prozesua islatzen duena.

(Murcia, 1990) Física e ilustradora.

Tras doctorarse en Física en la UPV-EHU (2021), decide formarme en el lenguaje gráfico, y cursa el ciclo superior en ilustración en IDarte, Gasteiz (2023).

Trabaja en diseños para textil, autoedición, cartelería, talleres y actualmente está inmersiéndose en el mundo del cómic. Ha colaborado con asociaciones como Uribarri Auzolanean, Harilka o Mundubat, y con instituciones como Lamiaena, Diputación de Bizkaia o Gobierno Vasco y ha sido seleccionada para seminarios y residencias de Galtzagorri y Euskal Irudigileak.

Suele optar por herramientas tradicionales, ya que así siente sus ilustraciones más honestas, desde una perspectiva crítica pero también humorística. Además, su conexión con el euskera está muy presente en sus trabajos entre los que destaca "Hitz Korapiloak": un diccionario ilustrado que refleja su proceso de aprendizaje de nuestra lengua.



## MALFARIO CÓMIC

MA. LOBÓN LEAL Y CRISTINA FERNÁNDEZ

CÁDIZ/SEGOVIA

(Segovia, Cádiz, Madril, 2017).

MA (Miguel Ángel Moreno, “@MuslitoduPollo”) ilustratzailea, komikigilea eta kultur kudeatzailea da. Lobón Leal (Francisco Lobón Leal, “@lobonleal”) ilustratzailea eta concept artist da, eta Cristina Fernández editorea eta diziplina anitzeko sortzailea da.

Hirurek parte hartzen dute Malfarioren “kontu txarreko” komikien Antologiaren egile gisa, zeinak dagoeneko 8 zenbaki baititu, urteko bat, eta B serieko espiritua, beldurra eta umore beltza konbinatzen baititu. Bakoitzak gai desberdin bat jorratzen du: beldur erotikotik hasi eta munstro, bideojoko edo azken liburukiko dinoporno lotsagabearaino.

Komunitatearen aldeko apustu garbi bat da, komikiaren inguruko askatasun sortzailerako gune bat, esperimentaziora zabalik dagoena. Gero eta gai zehatzagoak eta arriskutsuagoak darabiltzate, eta bere identitatea argia da: “ez gara ohiko argitaletxe bat, baizik eta bere burua argitaratzen duen talde bat, zeina espirtu fanzinezale, lotsagabe eta transgresoreaz elikatzen baita, betiere komunitatea sortzeko eta egileei askatasun osoa emateko borondatearekin. Autofinantzaketan sinesten dugu, egile jasangarriak izatean eta geure burua grina duten artistez inguratzean, bere arima saldu gabe xehetasun bakoitza zaintzen duten horiez inguratzean”.

(Segovia, Cádiz, Madrid, 2017).

MA (Miguel Ángel Moreno, “@MuslitoduPollo”) es ilustrador, autor de cómics y gestor cultural, Lobón Leal (Francisco Lobón Leal, “@lobonleal”) es ilustrador y concept artist, y Cristina Fernández es editora y creadora multidisciplinar.

Les tres forman parte como autores de la Antología de cómics de “mal rollo” Malfario” que ya suma ocho números, uno por año, con un espíritu de serie B, terror y humor negro. Cada uno con una temática distinta, desde el terror erótico hasta los monstruos, los videojuegos o, en el último volumen, el irreverente dinoporno.

Una apuesta clara por la comunidad, un espacio de libertad creativa en torno al cómic, abierto a la experimentación. Con temáticas cada vez más específicas y arriesgadas su identidad es clara: “no somos una editorial al uso, sino un colectivo que se autopublica, que se nutre del espíritu fanziner, lo irreverente y lo transgresor, siempre con la voluntad de crear comunidad y dar plena libertad a los autores. Creemos en la autofinanciación, en ser autores sostenibles y en rodearnos de artistas con garra, que cuidan cada detalle sin vender su alma”.



#### LUVAMIART

LUCÍA VÁZQUEZ DE PRADA DE MIGUEL

VALLADOLID

#### **(Valladolid, 1994) Fantasiatzko ilustratzailea eta idazlea.**

Arte Ederretan lizentziaduna UPV/EHUn (2017), pintura klasikoko prestakuntza du Valladolideko Eduardo Alonso Rico artistaren Akademian eta Concept Art-ekoa Pixels Zentroan. Ilustrazioak egin ditu Tartarus Gamesentzat eta Cyberpunk Legends-en garapeneko jokorako. Gaur egun, bere fantasiatzko tetralogian murgilduta dago, El Legado de los Primarios izenekoan, eta dagoeneko autoargitaratuta ditu lehen bi liburukiak: Tempestad eta Combustión.

Grafittoa eta xehetasunekiko zaletasuna erabiltzen ditu fantasiatzko bere iruditerian, eta zehaztasunez betetako ilustrazioak sortzen ditu portaminekin. Ez du errealismo purua egiten, errealismo estilizatua baizik, eta istorio txiki eta sentsazioetara garamatzaten ateak sortzen ditu. Batzuetan, ñabardura aztoragarriak erabiltzen ditu, itzaletatik begiratzen duten irudiek, eta, beste batzuetan, gai atseginagoak jorratzen ditu.

#### **(Valladolid, 1994) Ilustradora de fantasía y escritora.**

Licenciada en bellas Artes por la UPV-EHU (2017), tiene formación de pintura clásica en la Academia del artista vallisoletano Eduardo Alonso Rico y en Concept Art por el Centro Pixels. Ha realizado ilustraciones para Tartarus Games y para el juego en desarrollo de Cyberpunk Legends y actualmente está inmersa en su propia tetralogía de fantasía llamada El Legado de los Primarios, con los dos primeros libros, Tempestad y Combustión, ya autopublicados.

Con un imaginario fantasioso en el que utiliza el grafito y el amor por el detalle, crea ilustraciones minuciosas para las que utiliza portaminas. Trabaja más en un realismo estilizado que en un realismo puro, creando puertas hacia pequeñas historias y sensaciones, a veces con un matiz inquietante de figuras que observan desde las sombras y otras inclinándose hacia temas más amables.



LUCÍA ANTRU

LUCÍA ANTRUEJO TOVAR

VALLADOLID

#### **(Valladolid, 1995) Ilustratzailea.**

Arte Ederretako Gradua (Salamanca Unibertsitatea, 2017) eta Diseinu Grafikoko Masterra (Valladolidko Diseinuko Goi Eskola, 2018) ditu, eta hainbat erakunde eta markarekin lankidetzan aritu da ilustrazio aplikatuko proiektuetan, formatu handiko muralgintzan, haurrentzako ipuinen ilustrazioan eta arte eszenikoen jaialdietarako kartelak sortzen. Gaur egun, produktuetan (papera, ehunak, risografiak) obra pertsonalak sortzen ditu eta enkargu pertsonalizatuak egiten ditu; horrez gain, argitalpen-proiektuak, kartelak eta beste bezero batzuentzako horma-ilustrazioa ere egiten ditu.

Bere proiektuaren ardatza ilustrazioa da, babesleku emozional gisa, estilo sinboliko eta metaforiko batekin, non natura, irudi femeninoa eta autozaintza protagonista diren. Bere ilustrazio digitaletan eta paper cut erako bere eskuzko lanetan kolore bizi eta orekatuko paletak erabiltzen ditu, lasaitasun eta introspektzio sentsazioak transmititzeko.

#### **(Valladolid, 1995) Ilustradora.**

Con un Grado en Bellas Artes en la Universidad de Salamanca, (2017) y un Máster en Diseño Gráfico en la Escuela Superior de Diseño de Valladolid, (2018), ha colaborado con distintas entidades y marcas en proyectos de ilustración aplicada, muralismo de gran formato, ilustración de cuentos infantiles, así como en la creación de carteles para festivales de artes escénicas. Actualmente combina su obra más personal en productos (papelaría, textil, risografías), con encargos personalizados, proyectos editoriales, cartelería e ilustración para otros clientes.

Su proyecto gira en torno a la ilustración como refugio emocional, con un estilo simbólico y metafórico en el que la naturaleza, la figura femenina y el autocuidado son protagonistas. Tanto su ilustración digital como sus obras manuales en paper cut, en las que recorta papel para crear imágenes que dan una ilusión de profundidad a través de capas, usa paletas de color vivas y equilibradas con las que busca transmitir sensaciones de calma e introspección.

#MAZOKA2025

[WWW.LUCIAANTRU.COM](http://WWW.LUCIAANTRU.COM)

[WWW.MAZOKA.ORG](http://WWW.MAZOKA.ORG)



## HITZARTE

LINDSEY OLIVARES

NAVARRA

**(San Diego, California, 1987) Ilustratzailea, Karikaturagilea, Pertsonaien Diseinatzailea eta Animaziozko Zuzendari Artistikoa.**


Animazio-ikasketak amaitu zituen AEBko Ringling College of Art and Design-en, 2009an, eta, orduetik, pertsonaiak diseinatzeko eta arte zuzendaritzan dihardu Netflix Animation-entzat. Bere bezeroen artean daude ere Sony Pictures Animation, Dreamworks Animation eta Disney TV Animation. Lindseyk Pertsonaien Diseinatzaile Onenaren eta Produzio Diseinatzaile Onenaren bi Annie sari jaso zituen 2022ko edizioan, “Los Mitchell contra las máquinas” filmean egindako lanagatik.

